

## HELDUENTZAKO JARDUERETAN EUSKARAREN PRESENTZIA ETA ERABILERA ZAINTEKO PROPOSAMENAK

1- Zergatik zaindu euskararen presentzia eta erabilera?

2-Zure eta taldearen ezaugarriak kontuan hartu

3- Saiok linguistikoki ere prestatu

4- Aukerak eta aholkuak

- Hitz egin parte hartzaileekin gaiari buruz
- Eroso aritu eta eroso sentiarazi
- Kide itzultzaileen aukera
- Euskaraldia baliatzea
- Hizkuntza-errutina adibideak

## 1- Zergatik zaindu euskararen presentzia eta erabilera?

Gure gizartean hainbat aurrera pauso eman dira azken hamarkadetan elebitasunera begira. Gero eta jende gehiagok daki euskaraz ere, eta kalean euskararen presentzia indartzen doa.

Errealitate hori helduei begirako jardueretan ere antzeman behar litzateke. Hau da: euskararen presentzia eta erabilera zaindu beharko lirateke. Eskaintzaren kalitatea hobetzeko modu bat ere bada, gainera.

Ondorengo orrietan baliagarriak izatea espero dugun ideiak batzuk aurkezten dizkizuegu.

## 2- Taldearen eta zure ezaugarriak kontuan hartu

Helduen jardueretan parte hartzen duten kideen hizkuntza erabilera zein ezagutza mailek, talde nolakotasun anitza eskaini dezakete eta, beraz, baita errealitate linguistiko ezberdinak ere.

Hala, talde bakoitzeko dinamizatzaile gisa, honakoa hartuko dugu kontuan irizpide linguistikoak finkatu aurretik:

- Taldearen hizkuntza maila: partaideek ba al dakite euskara? Zenbatek eta zein mailatan? Informazio hau izena emate orrian jasotzea komeni da (*badakit, ez dakit, ulertzen dut*). Ikastaroa hasi aurretik informazio hori esku artean izatea komeni da.

Behin taldeko errealitate linguistikoa zein den jakitean, irizpide ezberdinak proposatu litezke:

IKASTAROAREN HIZKUNTZA	PARTE HARTZAILEEN EDO IKASTAROAREN EZAUGARRIAK	IRAKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK
EUSKARAZ	Parte hartzaile guztiak elebidunak dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastaroa euskaraz izango da.</li> <li>- Irakaslea <i>Ahobizia</i> izango da eta saiatuko da parte hartzaileak <i>Ahobizi</i> izan daitezen.</li> </ul>
AHOBIZI ETA BELARRIPREST IKASTAROAK	Guztiak ulertzen dute. Parte hartzaileak ahobiziak eta belarriprestak izango dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastaroa euskaraz izango da.</li> <li>- Irakaslea <i>Ahobizi</i> izango da, ez du hizkuntza aldatuko parte hartzaileek gaztelaniaz egiten badiote ere.</li> </ul>
ELE BIETAN	<p>1- Ikastaroaren parte hartzaile gehienak elebidunak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitz egiteko gai.</li> <li>• Ondo ulertzeko gai.</li> </ul> <p>2- Ikastaroak hizkuntza eduki gutxikoak dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agurrak euskaraz</li> <li>- Azalpen orokorrak euskaraz: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elebakarrei horien itzulpenak gaztelaniaz (irudiak lagungarriak izaten dira).</li> <li>• Hori ezinezkoa denean, beraiei ahoz gaztelaniaz.</li> </ul> </li> <li>- Banakako azalpenak bakoitzari bere hizkuntzan.</li> <li>- Parte hartzaileen galderei haiek erabilitako hizkuntzan erantzun; denentzat direnean, lehenengo euskaraz erantzun eta gero gaztelaniara itzuli. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza errutinak (askotan errepikatzen diren esamoldeak) euskaraz.</li> </ul> </li> </ul>
GAZTELANIAZ	Parte hartzaile gehienak erdaldunak dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agurrak euskaraz.</li> <li>- Azalpenak gaztelaniaz oro har (azalpenaren sarrera ele bietan, mamia erdaraz).</li> <li>- Banakako azalpenak bakoitzari bere hizkuntzan.</li> <li>- Parte hartzaileen galderei haiek erabilitako hizkuntzan erantzun; denentzat direnean, lehenengo euskaraz erantzun eta gero gaztelaniara itzuli.</li> <li>- Hizkuntza errutinak progresiboki euskaraz.</li> </ul>
GAZTELANIAZ	Denak dira erdaldunak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agurrak euskaraz</li> <li>- Azalpenak gaztelaniaz</li> <li>- Hizkuntza errutinak progresiboki euskaraz.</li> </ul>

### 3- Saioak hizkuntza aldetik ere prestatu

Saioak edukien ikuspegitik prestatzen diren bezala, garrantzitsua da hizkuntza aldetik ere landuta eramatea. Hala, kontuan hartu ondorengo gomendioak:

- Partaideen hizkuntza maila aztertu: hizkuntza irizpide bat edo bestea erabiltzeko.
- Hizkuntza irizpideak erabaki: taldearen hizkuntza izaeraren arabera. Behin erabakia hartu ondoren, beroiek argi eduki eta saia zaitez aplikazioan konstantea izaten.
- Aldez aurretiko lanketa: erabili beharreko hitz teknikoak, animo leloak, aginduak... oso barneratuta ez badauzkazu, aldez aurretik landu. Saioan zehar eskainiko dituzun azalpenak pentsatu eta aurreikusi.
- Progresioa: hasiera batean zenbait esapide edo errutina linguistiko dinamikan txertatzeko zailtasunak edukiz gero (partaideek ulertzen ez dituztelako...), erabili gorputz hizkuntza (mimika, keinuak) eta, horrez gain, hasierako bizpahiru alditan euskaraz eta gazteleraz errepikatu, behin lotura egin ondoren, progresiboki euskara hutsean erabili arte.

Saioak komunikazio eta hizkuntza kudeaketa aldetik ahalik eta modu egokienean eskaini ahal izateko, behar-beharrezkoa da hizkuntzari dagozkion egokitzapenak aurrez lantzea. Sarri ez da nahikoa euskaraz ongi aritzea: hiztegia, esapideak, baliabide eta estrategiak... erabili eta jakin behar ditugu. Ondorioz, arestian aipatutakoez gain:

- Eduki, arau edo antolaketa berri bat azaltzeko garaian, mezua ahalik eta argien esan, azalpena modu ordenatu batean prestatu. Azalpena eskaintzea errazago egingo zaizu.
- Azalpen orokorretarako gaztelaniazko itzulpen idatzia prestatu. Piktogramak eta irudiak oso lagungarriak izaten dira.
- Gorputz hizkera erabili: mimika, keinuak eta gorputz hizkera lagungarri izango da euskaraz pixkat edo batere ulertzen ez dutenei laguntzeko.
- Saioa bukatzean etxean landu hizkuntzaren inguruan sortutako zalantzak: hiztegia kontsultatu...
- Eguneroko errutina linguistikoak lagungarri izango zaizkizu: erabili beldurrik gabe eta behar izanez gero, sortu berriak.

## 4- Aukerak eta aholkuak

- Hitz egin parte hartzaileekin gaiari buruz
- Eroso aritu eta eroso sentiarazi
- Kide itzultzaileen aukera
- Euskaraldia baliatzea
- Hizkuntza-errutina adibideak

### 4.1- Hitz egin parte hartzaileekin gaiari buruz

---

Zuen jardueretan prest bazaudete euskararen presentzia eta erabilera zaintzeko, egokia izan daiteke jardueraren lehen egunetan horri buruz hitz egitea parte hartzaileekin. Adibidez:

- Euskaraz ba ote dakiten edo zenbat dakiten galdetu. Hala ere, Informazio orokor hau izena emate orrian jasotzen da (badakit, ez dakit, ulertzen dut). Ikastaroa hasi aurretik informazio hori esku artean izan behar dugu. Eta beraien inguruan euskaraz dakitenak ezagutzen ote dituzten galdetu: lagunak, bizilagunak, ilobak...
- Tailerretan euskararen presentzia zaintzearen asmoa azaldu:
  - Euskaraz dakitenak gusturago sentitzea nahi genuke
  - Euskaraz ez dakitenak euskarara pixka bat hurbiltzea nahi genuke modu positibo batean.
  - Gizartean gertatzen ari den errealitatera zertxobait hurbildu nahi dugu
- Ondoren, zer egiteko asmoa dugu azalduko diegu: azalpenak nola emango ditugun, hizkuntza-errutinak eta abar

## 4.2- Eroso aritu eta eroso sentiarazi partaideak

---

Euskararen presentzia eta erabilera indartzeko urratsak eman ahal izateko irakasleak eroso sentitu behar du eta parte hartzaileek ere eroso sentitu behar dute.

Taldea berria bada eta kideek ez badute elkar ezagutzen:

- Gaiari buruz hitz egin, irakaslearen jokabidea zein izango den azaldu eta egoera deseroso sentitzen badira nola jokatu dezaketen ideia batzuk eman

Jarduera lehendik egiten bada eta taldekideak elkar ezagutzen badute:

- Gaiari buruz hitz egin, urratsak emateko nahia transmititu, eta jokabidea zein izango den azaldu
- Horrek taldearen hizkuntza-ohituretan eragina badu, kontuan izan nahiko arraroa izatearen sentsazioa eduki daitekeela lehen asteetan, baina jokabidea mantenduz gero azkar normaltzat hartzen dela
- Kasu honetan ere deseroso sentitzen badira nola jokatu adostu daiteke taldekideekin

## 4.3- Kide itzultzaileen aukera

---

Taldeko kide gehienek euskaraz baldin badakite, azalpen guztiak euskaraz emateko moduetako bat kide itzultzaileen aukera izan daiteke. Modu horretan, guk euskaraz emandako azalpena kide honek itzuli ahal izango dio gaztelaniara besteari, eta guk ez dugu bi hizkuntzetan erabili beharko.

Tresna hau oso baliagarria izan daiteke batez ere euskara nahiko ondo ulertzen duten baina zailtasun batzuk dituzten kideen kasuan. Hau da: euskaraz gehientsuena ulertzen du, baina zerbait ulertzen ez duenean, irakasleari galdetu beharrean ondoan duen kide bati eskatzen dio azalpena. Modu horretan jardueraren dinamika eta bilakaeran ez du eraginik.

Noski, honetarako giro egokia sortu behar da taldean eta nahikoa konfidantza behar dute eroso sentitzeko.

#### 4.4– Euskaraldia baliatzea

---

Euskaraldia une oso egokia izan daiteke jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko. Taldeak arigune izan daitezen proposatu dezakegu, edota Ahobizi eta Belarriprest rolak har ditzaten eta bistaratu ditzaten animatu. Modu esplizitu eta positibo batean euskararen erabilera indartzeko bide aproposa izan daiteke.

#### 4.5– Hizkuntza–errutina adibideak

---

Zeintzuk dira zuen jardueretan maiztasun handiz errepikatzen diren hitz, esaldi edo elkarrizketa laburrak?

	<b>Euskara</b>
Agurrak	Kaixo. Zer moduz? Ondo. Gogotsu zatoz. Bihar arte. ...
Saioaren aurkezpena	Gaur ariketa hau egingo dugu ...
Azalpenak eta zalantzak	Ulertu duzue? Lo estáis haciendo muy bien ...
Jardueraren dinamizazioa	Materiala prestatzen hasiko gara ...
...	...

Jarduera bakoitzean ematen diren errutinak zehaztea komeni da. Batetik bestera oso ezberdinak izaten dira.

Taldeko kide batzuk euskaraz ez badakite, hizkuntza–errutinak bi hizkuntzetan errepikatu lehen saioetan, eta poliki poliki euskara hutsean erabiltzen hasi.